

ZER IRUDI ETA PERTZEPZIO DAUDE IKEDAM (INOREN KARGURA EZ DAUDEN ADINGABE MIGRATZAILEAK) KATEGORIAREN ATZEAN?




Galduta dauden neska-mutilak, babesgabeak, giza salerosketaren biktima direnak, tratu txarren egoera batetik ihes egin dutenak edo migratzera behartu dituztenak.

*Hänsel eta Gretel



Sistemaz baliatzen denazkar ustekoa.

*Tormesko itsumutila



Neska-mutil errugabea, baina bere barruan gaizkiaren hazia duena, hau da, Euskadiko, Espainiako eta Europako kultura mehatxatzen dituen kultura bat edo erlijio bat duena.

Iturria: Jiménez Sedano, L. eta de Dios Izquierdo, J. (2013).

Administrazioak kategoriak eta sailkapenak egiten ditu, gero guk naturalizatu egiten ditugu, eta iruditzen zaigu errealitatea deskribatzen dutela...

...baina **“inoren kargura ez dauden adingabeak”** etiketaren azpian, mota askotako egoerak eta oso familia-istorio desberdinak daude.

Iturria: Jiménez Sedano, L. eta de Dios Izquierdo, J. (2013).




Neska-mutilen **migrazioan**, tentsioa dago bi faktore hauen artean:



Adingabeak dira

Eskubideen subjektuak dira (bertako beste edozein neska edo mutil bezala)

“Babesgabetasun-egoeran” daudenez, bereziki babestu behar dira, eta “adingabearen interes gorena” nagusitu behar da.



Arauz kontrako egoeran daude

Lurraldera arauz kontrako administrazio-egoeran iritsi dira, eta bertan arauz kontrako egoera horretan daude.

Kanporatu egin daitezke, eta neurri murriztaile oro aplikatu dakieke.

Adingabeen eskubideen babesa nazioarteko zuzenbideak babesten du

(Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 24. artikulua), eta herrialdeko barne-zuzenbidearen gainera egon behar du (hala arautzen du Espainiako Konstituzioaren 96. artikulua eta Kode Zibilaren 1.5. artikulua).



Iturria: Jiménez Sedano, L. eta de Dios Izquierdo, J. (2013).